



Eskualdea Aduna Andoain Asteasu Larraul Urnieta Villabona Zizurkil

Albisteak Agenda Argazkiak Zorion Agurrak Iritzia Inkesta Gure Gaiak Aldizkariak KMK12

URNIETA 2014-02-02 16:14:58

IRITZIA

Txotx garaia Altuna sagardotegian

Xabier Altuna Jauregi (Urnieta, 1994) gazteari gogotsu nabari zaio txotx denboraldi berriaren hasieran. Altuna sagardotegiko uztza eta eskaintza hizpide, txotx garaian lanez lepo ibiliko dira hurrengo hilabeteetan. Uztaren zati handi bat botilan saltzen dute, asko eta asko Donostiako alde zaharreko tabernetan.

Zer nolako abiapuntua izan du aurtengo txotx denboraldiak?

Xabier Altuna. Xuabe hasi dela esan daiteke, baina iazko martxa bera jarraitzen ari gara. Esaten da, eta halaxe da, 2012an jaitsiera orokorra izan eta 2013an berrindartze bat nabaritu zela. Aurtun iazkoaren bidetik goazela esan genezake. Pozik gaude, beraz, txotx denboraldi berriaren abiapuntuarekin.

Zein aurreikuspen egiten duzue, iazkoaren bidetik jarraitzea?

X.A. Oso ona litzateke guretzat iazko martxa berari eustea, bai.

Aurtengo sagardoa nola definituko zenuke?

X.A. Definizio orokorra erabiltzen da urteko sasoi honetan, baina sagardotegi batetik bestera asko aldatzen da sagardoa. Gure kasuan, iazkoarekin alderatuta, sagardoa kolore aldetik intentsitate handiagoa du. Freskagarria, gazi puntua duela esango nuke.

Bezeroen artean sagardogintzan aritutakoak eta adituak izan badituzue. Iritzi berekoak al dira?

X.A. Bai, horrelako bezeroak baditugu eta adierazi dizudanaren ildoko iritzia dute.

Zenbat litro ekoizten dituzue?

X.A. Aurtun eta iaz kopuru beretsua ekoiztu dugu, 80.000-90.000 litro inguru. Gure tamainako sagardotegietan ekoizten den kopuruan gabiltza.

Sagarraren ekoizpena ona izan al da?

X.A. Kalitate aldetik oso ona da aurtengorako bildutako sagarra. Kantitate aldetik, aldiz, oso eskasa. Galizan eta Frantzia oso uztza ona eduki dute, eta horrek salbatu gaitu.

Txotx garaiaz gain, botilan litro asko saltzen dituzue, ezta?

X.A. Bai, halaxe da. Txotx garaia amaituta, sagardoa botilan sartzen hasiko gara, urte guztian edangarri izateko.

Donostian, pintxoan hiriburuan, oso estimatua da zuen sagardoa.

X.A. Egia esan, gure ekoizpenaren zatirik handiena Donostian saltzen da. Bezero partikular asko etortzen da hona ere, eta horrez gain, Altunako sagardoa Urnietako hainbat tabernetan edan daiteke. Baita Zumarraga aldean eta Nafarroa aldean ere.

Krisi garaia aipatuta, sagardotegietan beherakada hori astean zehar nabaritzen al da gehien?

X.A. Astean zehar jaitsi da gehien, bai. Baina behin ostirala iritsita, orduan mugitzen da jenderik gehien.

Tren geltokia gertu duzue. Abantaila izango da hori zuentzat ere?

X.A. Hori dugu aldeko, oso ona da hori guretzat. Gaur egun ezin da kotxea edonola hartu eta asko dira trenetxak iristen direnak.

Bestalde, Gipuzkoatik kanpo, sagardotegia turismoarekin lotzen ari dira geroz eta gehiago eta sagardotegian joera berri hori nabaritu dugu.

1904. urtetik martxan, 110 urteko ibilbidea egin du sagardotegiak. Altuna tradizio handikoa da, beraz...

X.A. Familia negozioa izan da gurea. Birraitona hasi zen lehen pausoak ematen, nahiz eta sagardotegia gure aitonak ireki. Nire aitak eta neronek txikitandik bizi izan dugu sagardotegi giroa.

Xehetasun bat erantsiko nuke, bestalde. 1904an ireki zen sagardotegia, baina askoz lehenago hasi ziren baserri honetan sagardoa ekoizten. Datu zehatz hori ez dugu, baina oso aspaldikoa da gure etxeko tradizioa.

Beraz, Xabier, hirugarren belaunaldikoa zara zu. Eta oraingoz sagardotegietan ez da oso ohikoa, baina zuek sare sozialaren erabilera egokia egiten duzue interneten.

X.A. Internet aro honetan, eskuko telefonoarekin jendea hogeita lau orduz konektatuta dago. Garrantzitsua da interneten negozioari bultzada ematea. Marketinga lantzeko modu bat da, norberaren negozioa ezagutarazteko baliagarria.

Gure ekimenaz gain, Gipuzkoako Sagardozaleen elkartearen internet bidez sagardoa saltzeko aurrerapausoak ematen ari dira.

Altuna tola sagardotegia
Galarraga baserria. Lategi auzoa, 5.
943 554 917 / 650 266 925.
Bazkaria, afaria egunero.
Igande gauez itxita.



Hiazinto Fernandorena
[Nik nahiago: Mielak!](#)



Joxeba Lizeaga
[Ez gaude kexatzeko moduan](#)



Jon Unanue
[Lurrikara](#)



Ainara Arratibel
[Oreka falta](#)



Bakartxo Iguaran
[Gabonak dira](#)



Igotz Alkorta
[Ez dadila ahaztu](#)



Leire Zubeldia
[Etxeko lanak](#)



Xabier Huitzi Belamendia
[Kantagintza: kantu zaletasunaren trebezia](#)



Garazi Kamio
[Berdintzen](#)



Joxin Azkue
[Euskaldun zintzoak... ustean](#)



Aitor Usandizaga
[Gaur ez dago berriketarik](#)



Aritz Garin
[Txertoak dohainik, gezurrak ere bai](#)



Oihana Iguaran
[Inuxente!](#)



Koldo Jauregi

Bidali lagun bati

- Nori:
- E-mail:
- Bidaltzailea:

[Gaztetxotako oroitzapenak](#)

Leire Zubeldia
[Ez dakit, eta zer?](#)



Antselmo Larrarte
[Oroitzapenak](#)



Ainara Ansa
[Juan Luis, zure bideari jarraituko diogu!](#)



Agurtzane Sarasola
[Etorkinek euskara ikasi al dezakete?](#)



Juli Azkue
[Txernobilgo zentral nuklearraren ondorioak izen abizenak ditu, gure kasuan, Snizhana](#)



Iban Balerdi
[Hasi ta bukatu negarrez](#)



Arantxi Padilla
[Munduan zehar bidaiatu nahi zuen txartel-zorroa](#)



Karmen Rodriguez-Ranz
[Izartxo-bakeroen filma distiratsua](#)




Igotz Alkorta
[Lotsagabeak](#)



Jon Miranda
[Txolarre irratiak 10 urte, bertso jaialdia \(Txolarre irratiko lan taldea\)](#)



Lierni Alkorta
[Ongi? Ongi etorri...](#)



Mikel Manzisidor
[Bizikleta estatikoa](#)



Jon Ander Ubeda
[Papera, grafikagintza eta kazetaritza](#)



Goio Telletxea

[Aiurri sozial eta biziago bateruntz](#)**Eneko Zabala**[Adunako eskolaren bilakaera](#)**Felipe Izagirre**[Ongi etorria Aiurri](#)**Arkaitz Lasa**[Kaixo guztioi!](#)**Arantxa Iartza**[Zer da andoaindar egiten gaituena?](#)**Odei Esnaola**[Mihise zuria](#)**Iñaki Sorarrain**[Herrien biziraupena](#)**Tomas Arrastoa**[Anjel Egiño laguna gogoan](#)**Ander Leon**[Garraioa eta frakasatuak](#)**Amagoia Eskudero**[Aurreiritziak](#)**Zizurkil Zero Zabor**[Errausketa eta minbizia. Ikerketa berriak, ondorio zaharrak](#)**Ainara Loyarte**[Santuz santu](#)**Iyuya Urrutia Goya**[Eskerrak Amasa-Villabonako Udalari](#)**Galder Azkue**[Legealdi erdian](#)

ARGAZKI BILDUMAK

**Andatza eguna 2012**[3 argazki ikusgai](#)**Aizkardi mendi taldeko kideak Bardea Beltzetan**

[3 argazki ikusgai](#)



**"Gu bai artistak" erakusketa
zabalik, Iriarten**
[10 argazki ikusgai](#)



**Greba Orokorra, jarraipen
zabala Asteasun**
[10 argazki ikusgai](#)



**Greba Orokorra, jarraipen
zabala Adunan**
[10 argazki ikusgai](#)

© Erroitz. Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak. 943 300 732 andoain@aiurri.com